

Zulo beltzetik atera nahian

Azken hilabeteotan Txuri Urdin izotz hockey taldeak arazo ekonomiko larriak izan ditu. Horregatik, egungo presidente Miguel Sanzek, denboraldi hone-tan, kirol emaitzen gainetik, taldea ekonomikoki sendotze-ari eman dio lehentasuna.

Raul Perez

Joan den denboraldia ahazteko modu-koa izan zen Txuri Urdin taldearen-tzat, bai kirol arloan eta baita ekono-mia arloan ere. Arazo horien ondorioz, or-duko presidente Richard Veak kargua uz-tea erabaki zuen uda hasieran.

Miguel Sanzek Vearen lekua hartu zuen. Zuzendaritza batzorde berria laie-an aritu da taldea bizirik mantentzeko eta Liga Txapelketan parte har zezan. Azke-nik, eta Txuri Urdinek, diru arazoak zirela medio, Liga Txapelketako lehen jardun-aldia atzeratu behar izan zuen arren, Do-nostiako izotz hockey taldea lehian ari da. Miguel Sanzek dioenez, "elkar-teak oso hilabete gogorak jasan ditu, baina azkenean aurrera egingo dugula dirudi". Sanzek azaldu digunez, pare bat babesle-rekin ari dira hizketan eta baliteke dato-zen egunotan taldeak babesle berria iza-tea. Hala ere, Sanzek ez ditu ahaztu az-

ken hiru hilabeteetako komeriak. "Tal-de nagusian, esaterako, jokalaria gutxi geni-tuen. Hortaz, harrobiko jokalaria Oho-rezko Mailako taldera igo behar izan ditu-gu. Ondorioz, aurten 19 urte azpiko tal-dea ezin izan dugu osatu", azaldu digu Sanzek.

Telebistaren beharra

Etxeko partiden ordutegiarekin ez da-go batere ados Txuri Urdineko presiden-tea: "Izotz Jauregi propioa ez dugunez, 22.00etan jokatzera behartuta omen gaude, eta hain berandu jokatzek ez di-tu ikusleak erakartzen. Partiden ordute-gia aurreratzen saiatuko gara ahalik eta zale gehien gurera ekartzeko".

Aurtengo denboraldian zuzendaritza batzordeak elkarteak, batik bat, ekono-mikoki indartu nahi du. Ildo honetatik, San-zek hockey taldea "publizitate produktu-tzat" jotzen du. Telebista kateek izotz hockey partidak eman behar dituztela dio Txuri Urdineko presidentek: "Taldea sendotzeko babesleak behar ditugu eta babesleak, telebistan agertzen ez badira, ez dute ezer jakin nahi".

Bestalde, emaitzei erreparatuta, den-boraldia ez da ondo hasi talde donostia-rrarentzat: bi partida jokatu eta biak gal-du ditu. Dena dela, elkarteak kinka larrian egon dela kontuan hartuta, "aurtengo ga-raipenik onena azpiegitura ekonomiko egokia lortzea litzateke", dio Sanzek.



Bera-Bera, hostetik host

Bera-Bera eskubaloia tal-dea denboraldi hasiera bi-kaina burutzen ari da. Jo-se Luis Villanuevak zu-zendutako neskek jokatu-tako bost partidak irabazi dituzte. Egun Bera-Bera saikapeko goiko pos-tuetan dago Valentziako Ferrobis eta El Osito eta Alacanteko Elda talde indartsuekin berdinduta. Larunbat arratsaldean, Bera-Berak Lanzaroteko tal-dea hartuko du Bidebietako kiroldegian.



Badator Behobia Donostia

Behobia-Donostia jaste-keta ari jokatzen dugu. Aurtengo ekitaldia azaroren 10ean jokatuko da. Urtero bezala, aurten ere Beho-bia-Donostia aurretik beste lasterketa batzuk jokatzeko ari dira Donostian. Joan den igandean, esaterako, Hiru Hondartzako Krosa jokatu zen eta igandean, hilak 20, 15 kilometroko Donostiako Lasterketa Herri-koa jokatuko da. Elbarriatuak 9.45ean abiatuko dira Madril hiribidetik, eta gainontzeko lasterketarak 10.00etan.



Mikel Egiguren finalaren bila

Asteotan Donostian jokatzen ari den Munduko Zes-ta Punta Txapelketa azken txanpan dugu. Ostiralean, hilak 18, finalerdia jokatuko dira 22.30etik aurrera. Alde batetik, Golkotxea, Enbil eta Alberdi. Osa bi-koteak ariko dira, nor baino nor. Beste aldetik, Mikel Egiguren donostiarrak eta Elizegik, Arriaga eta Barrioko izango dituzte areno. Finala igandean izango da 17.00etan.

